

2016ko «Tafalla va de calle, antzezkale» jaialdia

Abuztuak 19


<<Tafalla va de calle, antzezkale>> jaialdia Tafallako Jai Batzordearen ekimena da, non abuztuko jaietako egun batean kalea antzeztoki bihurtu nahi duten.



2016ean jaialdiaren 9. edizioa ospatuko da, abuztuaren 19an, ostiralean, hain zuzen ere.



“Tafalla va de calle, antzezkale” Tafallako udalak antolatzen du eta Quiero Teatrok kudeatu.



OINARRIAK

1.- Parte hartzaileak:

“Tafalla va de calle, antzezkale” jaialdian kalean egiteko ikuskizuna (zirkoa, dantza, txotxongiloak, zankoak, mimoak, musika, clown, ipuin kontalaria...) aurkezten duen orok parte har dezake, bai taldean eta bai bakarkakoan.

2.- Izena ematea:

Parte hartu nahi dutenek atxikiturik dagoen izen-emate fitxa bete eta honako emailera bidali beharko dute: info@quieroteatro.com

Gaian honakoa jarriz: **Tafalla Va de calle, antzezkaletan 2016.**

3.- Epea:

Izen-emate fitxa aurkezteko epea **2016ko abuztuaren 1ean** amaituko da.

4.- Modalitateak:

Jaialdiak parte hartzeko bi modalitate bereizten ditu:

A - Taldeak

B - Banakako artistak edo bikoteak.

5.- Sariak:

Modalitate bakoitzeko sari bat egonen da:

A modalitatea, taldeak.....500€

B modalitatea, banakako artistak edo bikoteak.....300€

Parte-hartzaile guztientzako asistentziagatiko dieta:

A modalitatea, taldeak.....200€

B modalitatea, banakako artistak edo bikoteak.....100€

7.- Epaimahaia:

Epaimahaia Tafallako Jai batzordeak izendatutako hiru pertsonak osatuko dute, eta beraiek izango dira sariak banatuko dituztenak.

8.- Ikuskizunaren iraupena:

Ikuskizunaren iraupena ez da 10 minututik beherakoa izan behar ezta 40 minututik gorakoa ere.

9.- Ikuskizunaren ordena:

Ordena, lekua eta ordutegia antolatzaileen esku geratuko da.

10.- Artisten esku geratzen da:

Konpainiaren pertsonalak edo artista parte-hartzaileak karga / deskarga eta muntaketa / desmuntaketa lanak egingo ditu. Ikuskizuna aurrera eramateko

beharrezkoak dituen baliabide teknikoak (argia, soinua...), atrezzo, jantziak...baita posibleak suertatzen diren egile-eskubideen SGAE-ren ordainketa eta kudeaketa, parte hartzaileen esku egongo dira. Antolakuntzak ez du egile-eskubideen kudeaketaren inguruko gaien ezta ordainketa ezaren ardurarik hartuko.

Jaialdian parte hartzeak honen funtzionamenduaren onarpena dakar.